

MURRIZKETA BERRIA HEZKUNTZAN: ARRATSALDEKO IRAKASKUNTZA ZUZENA BESTELAKO ORDU LEKTIBOTZAT HARTZEA

Jakinarazten dizuegu gaurko mahai sektorialean sindikatu guztiok eskatu dugula arratsaldeko irakaskuntza saioak zuzeneko irakaskuntza kupoaren barrenean sartzeko, eta ez bestelako saio lektibo gisa, hori baita Departamentuak familiei atsegin emateko duen asmoa, ikastetxeetan giza baliabideak handitu gabe.

Saio horiek bestelako saio lektibotzat hartzeak, besteak beste, arazo hauek ekarriko ditu ikastetxeen funtzionamenduan:

- Zuzeneko irakaskuntzako saioen kopurua handitzea, asteko 27-30 saio izan arte.
- Koordinaziorako, materiala prestatzeko eta abarretarako dauden orduak murriztea.
- Zaintza guztiak betetzeko ezintasuna.
- Garraiatutako ikasleei arreta emateko zailtasunak.
- Landa eremuko eskoletan irakasleen lan orduak gehitzea.
- 55 urtetik gorako langileen lanaldia murrizteko eskubidea kentzea, langile faltagatik.
- Seme edo alaba adingabea zaintzeko baimena erabiltzeko ezintasuna.
- Irakasleen jardunaldiaren luzatze orokorra.

Egoera horren aurrean, Departamentuari eskatzen diogu Protokoloa berehala zuzentzeko eta:

- **Arratsaldeko zuzeneko irakaskuntzako orduak, benetan, zuzeneko irakaskuntzako ordutzat hartzea.**
- **Plantillak indartzea, Hezkuntza Publikoan BPGaren % 5eko inbertsioa lortu arte.**
- **Irakaskuntza langileon lanaldiari eragiten diguten aldaketa guztiak mahai sektorialean negoziatu behar dira, behar bezalako denborarekin.**